

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### 2018an euskara ikasteko beka deialdiaren laburpena

BDNS (identifikatzailea): 413570

Erakunde esleitzatzailea: Amurrioko Udala.

Bulegoa: Euskara arloa.

Onuradunak: 2017-2018 ikasturtean Amurrion erroldatutako pertsonak, 16 urte beteak dituztenak, eta Amurrioko Udaleko langileak.

Betekizunak eta horiek egiaztatzeko moduak: Onuradunek ikastaroaren ehuneko laurogei edo gehiago egin dutela egiaztatatu behar dute HABEK homologatutako zentroetako batek egindako ziurtagiriaren bidez.

Xedea: Deialdi honen helburua da Amurrioko herritarrek euskara ikastea sustatzeko diru-laguntzak arautzea.

Zenbatekoa: Ordaindutako matrikularen ehuneko 75 arte lagunduko da diruz; gehienez ere 1.961,06 euro emango zaio pertsona bakoitzari bere euskalduntze prozesu osoan zehar, Amurrioko Udaleko langileei izan ezik, horiei kostuaren ehuneko ehun emango baitzaie. Barnetegi batean 400 ordu edo lau hilabetetik gorako ikastaroa eginez gero, matrikula zenbatekoaren ehuneko 75 arte lagunduko da diruz (ehuneko 100 Udaleko langileen kasuan), baldin eta 5. urratsetik gorako mailak egiaztatzen badira.

Diru-laguntza egotzen zaien aurrekontu kredituak: 2018 ekitaldirako udal aurrekontuan bada partida bat (18.1.18.1.33592.480 zk.) euskara ikasteko beketarako, eta 23.000 euroko zuzkidura du. Deialdi honen babesean emango diren laguntzak partida horretako kredituari egotziko zaizkio.

Oinarriak aztertzea, argibideak eta agiriak: Amurrioko Udaleko Gizarte Gaietako Arloan (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea, 945891161 telefonoa), eta Amurrioko Udalaren webgunean, deialdia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eta eskaerak aurkezteko epea amaitzen den arte, 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Eskaerak aurkezteko tokia eta epea: 2018ko urriaren 1etik 31ra aurkeztu ahal izango dira eskaerak Amurrioko udaletxean (Juan Urrutia plaza z.g., 01470 posta kodea), eta posta ziurtatu bidez ere bidali ahal izango dira, edo urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilita. Garaiz eta forma egokian aurkeztutako eskaerak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak: Eskaera orria, finantziatorik ez jasotzearen zinpeko adierazpenarekin batera, eta egindako ordainketaren ordainagiriarekin eta dagokion euskaltegiak emandako 2017-2018 ikasturteko (2018 urriaren 1a arte) asistentzia ziurtagiriarekin batera.

Jakinarazpen modua: Amurrioko Udalak beka eskaeren ebazpenak udaletxeko iragarki taulan eta web orrian jakinaraziko ditu. Ukatutako eskaeren jakinarazpena ohiko posta bidez helaraziko zaie interesdunei.

Ebazteko epealdia: 3 hilabete.

Ebazpena: Eskaerak tokiko gobernu batzarraren akordio bidez ebatziko dira edo alkatetza ebazpen bidez, eta Euskara Arloak aztertuko ditu.

Errekurtsoak: Ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegian, jakinarazpena ematen denetik bi hilabeteko epean. Nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, jakinarazpena ematen denetik hilabeteko epean.

Amurrio, 2018ko abuztuaren 31

*Alkatea*

*MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA*